

Kostuen Egitura

Hasieran, ahalik eta gehien murriztu nahi ditugu kosteak, izan ere, gure produktoa merkatuan testeatzen ari garelako eta ez dugu nahi beharrezkoak ez diren kostuak izatea. Halaere, marka premium bat garenez, guztiz prest gaude kalitatea bermatzen dituzten funtseko jardueretan behar dena inbertitzeko. Hauek izango dira gure kostuak 4 multzotan sailkatuta.

1) Kostu finkoak

Oraingoz, kostu finko bakarrak 6 izango dira: webgunearen hostinga, webgunea sortzeko eta mantentzeko plataforma (Shopify), email marketing egoteko erraminta (ActiveCampaign), abokatu baten soldata, bulegoaren alokailua eta Correos-en tarifa estandarra.

2) Kostu aldagarriak

Gure kostu aldagarri nagusienak, zapatilak ekoizteko erabiltzen ditugun materia prima ekologikoak erostea (kotoi organikoa, birziklatutako ehuna, kautxu naturala...), Tortola 1947 fabriken tarifa eta materia primak transportatzeko ibilgailuak dira. Baina beste kostu aldagarri txikiagoak ditugu. Esate baterako, bulegoan erabilitako energia eta wifia, ordenagailuen mantenimendua eta abar.

3) Eskalako ekonomoniak

Oinetako kantitate gehiago saltzerakoan, ekoizpenaren kosteak beheratuko dira, zapatilak merkeagoak eginez. Hala eta guztiz ere, ez genituzke zapatilen prezioa jaitsiko, izan ere, produkto premium bezala posizionatu nahi gara eta hori kaltegarria izan dezake. Etorkizunean, bai izango da interesgarria submarka merkeago bat hastea zapatila eskuragarriagoekin.

4) Hedapen ekonomikoak

Ditugun fabrikekin, askoz merkeago izango da zapatila osoak eta zolak batera ekoiztea, aparte ekoiztuko bagenu baino, zapatiletatik soberan geratzen diren materialak zolak egiteko erabili ahal direlako.